#### 4.3. Relativos a una organización social corresponsable con el cuidado.

Promover el desarrollo de políticas de igualdad en empresas y entidades privadas, mediante asesoramiento, formación, apoyo económico y reconocimiento social.

Promover la red de entidades públicas.

#### 4.4. Relativos a la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Promover la coordinación interdepartamental e interinstitucional para avanzar en la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Impulsar y gestionar la campaña Beldur-Barik de prevención de la violencia sexista entre la juventud.

Promover la implicación de la sociedad en la prevención de la violencia contra las mujeres mediante la convocatoria de concesión de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones que impulsen y promuevan actividades de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres.

Promover la formación de profesionales que den una respuesta especializada a las víctimas de la violencia contra las mujeres, mediante la concesión de ayudas para la realización del master en intervención en violencia contra las mujeres que se imparte en la universidad de Deusto.

Promover la mejora de la calidad de la atención ofrecida por todas las instituciones mediante la participación en el programa de Naciones Unidas Estándares internacionales de calidad en la atención a víctimas de la violencia contra las mujeres.

Promover la reparación especialmente en sus vertientes de reconocimiento social de las mujeres víctimas de violencia y de la difusión de la verdad, en contacto con las asociaciones de mujeres para impulsar el trabajo en favor del fortalecimiento de la red de asociaciones de mujeres sobrevivientes de la CAPV.



Profesionalen prestakuntza bultzatzea, Jabetuz ekimeneko ikastaroen bitartez (Jabetuz, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa).

Eremu guztietan sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko eta tratatzeko neurrien berri ematea, eta aplikatu daitezkeen sustatzea.

Esku-hartze prebentiboak egiteko eta arreta emateko programak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriazko adierazpen mota berriak direla eta (gizakien salerosketa, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartuak...); horretarako, diru-laguntzak emango zaizkie erantzun-programa espezifikoak behar dituzten indarkeria mota berezi horiek detektatzen eta artatzen laguntzen duten entitateei; erakundearteko koordinazioa hobetuko da, eta prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatu eta babestuko.

Impulsar la formación de profesionales a través del desarrollo de los cursos enmarcados en la iniciativa Jabetuz-Programa de formación a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres.

Difundir y promover la aplicación de medidas de prevención y tratamiento de acoso sexual y sexista en todos los ámbitos.

Promover programas de intervención preventiva y de atención a nuevas formas de manifestaciones de la violencia contra las mujeres – (trata de seres humanos, MGF, matrimonios forzados, etc.) ... mediante subvenciones a entidades que coadyuven en la detección y respuesta integral a estas situaciones singulares de violencia que necesitan programas específicos, mejora de la coordinación interinstitucional, así como la promoción y apoyo a la formación y la sensibilización.



PROGRAMA	PROGRAMA
3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</u>	<u>47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER</u>
EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA	DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

#### MEMORIA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna – benetakoa eta eraginkorra– lortzea, politikagintzaren, ekonomiaren, kulturagintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundeak honako hauen arabera antolatzen du bere jarduna: urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren bidez esleitutako funtzioen arabera (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezartzeari buruzko dekretua, otsailaren 4ko 6/2014 Dekretuaz aldatua), eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean ezarritako programa eta helburuen arabera (Emakunde bere jardura-plan propioa egiten du plana garatzeko). Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeko 15. artikuluan ezarritakoa betez egiten du hori.

Plangintza garrantzi handiko tresna da berdintasun-politikak garatzeko. Gai horretan aurrerapauso nabarmena eman da gure erkidegoan: Administrazio Orokorrean eta foru-administrazioetan egindakoaz gainera, herritarren % 80 baino gehiago berdintasun-plan bat duten udalerrietan bizi da. Berdintasun-politikak finkatzeko, bada lehentasunezko helburu bat: plangintzak eguneratzea eta hobetzea eta oraindik plangintzarik ez duten erakundeetan planak ezartzea. Hain zuzen ere, plangintzak baldintzatzen du politikaren kudeaketa, eta haren bitartez, erakundeek behar beste jardura eta ekintza abiarazten dituzte, koordinatuta eta EAeko Berdintasunerako VII. Planean finkatutako jarraibideen arabera; jarduerak gobernu onean aurrera egiteko dira, eta ekintzak, berriz, balio sozialak aldatzeko, emakumeak ahalduntzeko, eraldaketa ekonomiko eta soziala egiteko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko.

El Instituto Vasco de la Mujer - Emakunde tiene como finalidad esencial la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, social, cultural y económica.

El Instituto planifica su actividad en consonancia con las funciones que le son atribuidas mediante el Decreto 214/2006, de 31 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, modificado por el Decreto 6/2014, de 4 de febrero y con los programas y objetivos establecidos en el VII Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, en cuyo desarrollo Emakunde elabora su propio plan de actuaciones, todo ello en cumplimiento de lo establecido en el artículo 15 de la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres.

La planificación es un instrumento de capital importancia para el desarrollo de las políticas de igualdad. El avance en la materia es evidente en nuestra Comunidad donde, además del conjunto de la administración general y las administraciones forales, más del 80% de la ciudadanía vive en municipios que cuentan con un Plan para la igualdad. La actualización y mejora de las planificaciones, y su extensión a aquellas entidades que aún no cuentan con ellas, es un objetivo prioritario para la consolidación de las políticas de igualdad. En efecto la planificación determina la gestión de la política y es a través de ella que las entidades ponen en marcha tanto el conjunto de actividades necesarias para avanzar en el buen gobierno como las acciones dirigidas a promover el cambio social de valores, en cuanto al empoderamiento de las mujeres, la transformación económica y social, y la erradicación de la violencia contra las mujeres, de forma coordinada y acorde a las directrices marcadas por el VII Plan para la Igualdad de la CAE.

Politikak ondo planifikatu eta garatuko direla bermatzeko, beharrezkoak dira hartara bideratutako egiturak, pertsona gaituak, erakundearteko koordinazioa, datu egokiak, aurrekontu-gaitasuna, eta berdintasunaren helburua politika publiko guztietan sartzea.

Erkidegoko erakundeetan berdintasunerako unitate administratibo ugari sortu dira. Nolanahi ere, jarraitu egin behar da erakunde autonomoetan eta erakunde publikoetan horrelako unitateak sor daitezuten sustatzen; zehazki, haien eskumen-eremu jakin batzuetan, non berdintasun-politikek aurrerapen handia lor baitezakete. Udaletan ere, batez ere biztanle gutxi dituztenetan, unitate horien sorrera bultzatu behar da, eta formula egokiak bilatu behar dira.

Berdintasunaren arloan aritzen diren langileen ehuneko handi batek prestakuntza espezifikoa du. Hala ere, ikusi da beharrezkoa dela prestakuntza administrazio publikoetako langile guztientzat (politikarientzat barne) zabaltzea eta sakontzea, kontuan hartuta langileek esku hartzen duten eremuetako politikak sektore anitzekoak eta zeharkakoak direla.

Hain zuzen ere, aztertzen ari garen politiken ezaugarri horren eraginez, oraindik ere premia handia dago, lortutako aurrerapena handia izanda ere, datu, azterlan eta ikerlanen erabilgarritasuna zabaltzeko eta hobetzeko, horrela ahalbidetuko baita hainbat esparru eta kolektibotan sexuaren arabera dauden diferentziak eta desberdintasunak xehetasunez azterzea.

Erakundeen artean eta gizartean, adostasun handia dago politika publikoak ebaluatzeko beharraz, eta ezinbesteko elementuetako bat da gobernu onean aurrera egiteko, kontu-ematean, gardentasunean eta emaitzen sozializazioan egiten duen ekarpenagatik. Berdintasunari buruzko politiken ebaluazioaren ibilbidea eta kalitatea zabal aitortuta dago Euskadin.

Azkenik, esan behar da gobernu onerako oso garrantzitsua dela erakundeen arteko koordinazioa, horrek ahalbidetzen baitu politikek koherentzia- eta inpaktu-maila handia izatea daukagun testuinguruan, zeinetan eskumen-banaketa konplexua baitago, lehen aipatutako sektore-aniztasunaz eta zeharkakotasunaz gainera.

Gobernu onetik harago, beharrezkoa da balio sozialen aldaketa sustatzen jarraitzea, aukera izateko sexuen hierarkian oinarritutako gizarte bat atzean utzi, eta bestelako gizarte batera igarotzeko: gizarte bat, non giza-dibertsitatea aitortzen den, non pertsonen arteko diferentziak errespetatzen diren, non giza-bizitza garatzeko eta mantentzeko beharrian guztiak aitortzen diren eta aintzat hartzen, eta non benetako erantzunkidetasun publikoa eta pribatua planteatzen den behar horiei erantzuteko. Oraindik ere ehuneko batek, txikia bada ere, emakumei eta gizonei ez dizkie berdin aitortzen gaitasunak, desioak eta betebeharrak.

Asegurar una buena planificación y desarrollo de las políticas requiere estructuras orientadas a ello, personas capacitadas, coordinación interinstitucional, disponibilidad de datos adecuados, capacidad presupuestaria y la inclusión del objetivo de la igualdad en el conjunto de las políticas públicas.

La creación de unidades administrativas para la igualdad ha alcanzado un alto nivel en las instituciones de la Comunidad, no obstante es necesario seguir impulsando su creación en organismos autónomos y entes públicos cuyo ámbito de competencia es susceptible de tener un claro impacto en el avance las políticas para la igualdad. Así mismo se hace necesario buscar fórmulas adecuadas e impulsar su creación en el ámbito municipal, principalmente en los de menor población.

Se puede señalar que el porcentaje de personas dedicadas a la igualdad que cuenta con formación específica es elevado, pero igualmente se constata la necesidad de ampliar y profundizar en la formación de todo el personal de las administraciones públicas, incluido el político, dado el carácter multisectorial y transversal de las políticas objeto de su intervención.

Precisamente este carácter de las políticas que nos ocupan deriva, también, en la necesidad, aún patente, a pesar de los importantes avances realizados, de ampliar y mejorar la disponibilidad de datos, estudios e investigaciones que permitan análisis detallados de las diferencias y desigualdades existentes en función del sexo en una gran diversidad de ámbitos y colectivos.

La necesidad de la evaluación de las políticas públicas cuenta con un amplio consenso interinstitucional y social y es uno de los elementos imprescindibles para avanzar en el buen gobierno por su aportación a la rendición de cuentas, a la transparencia y a la socialización de resultados. La trayectoria y calidad de la evaluación de las políticas de igualdad en Euskadi cuenta con un amplio reconocimiento.

Finalmente señalar la importancia que adquiere, para la mejora del bueno gobierno, la coordinación interinstitucional, a fin de alcanzar un alto grado de coherencia e impacto de las políticas, en un contexto en el que, a la multisectorialidad y transversalidad, se suma una distribución competencial compleja.

Más allá del buen gobierno resulta necesario trabajar para promover un cambio de valores sociales que posibilite transitar de una sociedad que sostiene la jerarquía de sexos a una que parte del reconocimiento de la diversidad humana y del respeto a las diferencias entre las personas, que reconoce y considera el conjunto de las necesidades para el mantenimiento y desarrollo de la vida humana y plantea una real corresponsabilidad pública y privada para dar respuesta a las mismas. Aún existe un porcentaje, es cierto que poco elevado, que no reconoce capacidades, deseos y obligaciones iguales para mujeres y hombres.

Eraldaketa sozial horrek emakumeen ahalduntzea ere eskatzen du. Eta ahalduntze-prozesua alderdi guztietan (pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoa) garatzeko eta sendotzeko, beharrezkoa da politika publikoek hori sustatzea. Emakumeen % 30 baino gehiagoren ustez, erabakiak hartzeko autonomia handiagoa edo txikiagoa izatea emakume edo gizon izatearen arabera da, eta % 88ren ustez, erabaki autonomoak hartzeko garaian emakumeek gehiago pentsatzen dute inguruko jendearengan beren buruarengan baino.

Emakumeen genero-kontzientzia eta autonomia funtsezko zutabeak dira emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, eta horiek gabe, berdintasuna ez da benetakoa izango, ezta eraginkorra ere.

Emakumeen ahalduntze kolektiboa sustatzeak ezinbestean dakar baliabideak berdintasunez erabili eta kontrolatu daitezen bermatzea. Eta baliabideen artean, garrantzi handia dute baliabide ekonomikoek, eremu horretan oraindik ere oso handia baita emakumeen eta gizonen arteko aldea. Oraindik ere nabarmena da egoera: emakumeek jarduera-tasa txikiagoak dituzte, lan-baldintza okerragoak eta lanbidean gora egiteko aukera murriztagoak.

Halaber, karga handiagoa dute etxeko arduren banaketan eta beste pertsona batzuen zaintzan, eta aisialdi-denbora gutxiago dute. Horrek ere galarazten du emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna egotea. Horregatik jarraitu behar da bestelako gizarte-antolaketa bat eta enpresa-kultura bat eraikitzen, gure gizartei eusteko beharrezkoak diren ardurak berdintasunez banatu ahal izateko.

Dagoeneko aipatu dira deuseztatu beharrekoak diren desberdintasun eta egoera batzuk, emakumeen aldekoak ez direnak; premiazkoa, ordea, emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerraraztea da, zeina gure gizarteetan dagoen egiturazko berdintasun ezaren ondorio baita.

Gizarte aurreratu eta demokratiko batek ezin du horrelakorik onartu. Egoera hori pairatzen duten emakumeek urtean aurkezten dituzten salaketan kopurua da egoera horren erakusgarri garbia. Euskadiko herritarren % 90ek onartezintzat jotzen du emakumeen aurkako indarkeria.

Beraz, premiazkoa da indarkeria mota hori prebenitzen lan egitea eta gure gizarteaz azaltzen ari diren beste indarkeria forma batzuei ere arreta eskaintzea; horretaz gainera, ezinbestekoa da indarkeria egoerak goiz detektatzea eta arreta integrala eskaintzea indarkeria jasaten duten emakumei eta beren ardurapean daudenei, bereziki seme-alabei, horiek ere badirelako amen aurka baliatzen den indarkeriaren biktima.

Horren guztiaren eraginez, 2019ko ekitaldian helburu eta ekintza hauek garatzea erabaki da.

Esta transformación social requiere, también, del empoderamiento de las propias mujeres, proceso cuyo desarrollo y consolidación, en sus vertientes, personal, colectivo, social y política, necesita de una promoción desde las políticas públicas. Más de un 30% de mujeres consideran que la mayor o menor autonomía en la toma de decisiones varía en función de ser mujer u hombre, y el 88% considera que las mujeres, en sus decisiones autónomas, se ven afectadas por pensar más en el entorno que en ellas mismas.

La conciencia de género y la autonomía de las mujeres son dos pilares claves para la consecución de la igualdad de mujeres y hombres y sin ellas, la igualdad no será real, ni efectiva.

La promoción del empoderamiento colectivo de las mujeres exige garantizar su uso y control de los diferentes recursos en condiciones de igualdad, entre los que adquieren relevancia los recursos económicos por ser un ámbito en el que la distancia entre mujeres y hombres es aún muy importante. Menores tasas de actividad de las mujeres, mayor precariedad en las condiciones de trabajo y menores oportunidades de promoción profesional son algunas realidades aún evidentes.

Una mayor carga en el reparto de las responsabilidades domésticas y de cuidado de las personas y un menor acceso al tiempo de ocio son también realidades que impiden una igualdad real de las mujeres y de los hombres. De ahí la necesidad de trabajar en la construcción de una organización social y una cultura empresarial más favorables al reparto equitativo de responsabilidades necesarias para el mantenimiento de nuestras sociedades.

Se han señalado ya algunas desigualdades y situaciones menos favorables para las mujeres que es necesario combatir, pero si algo es urgente en este sentido es la erradicación de la violencia contra las mujeres, fruto de la desigualdad estructural existente en nuestras sociedades.

Una sociedad avanzada, democrática, no puede permitirse una realidad de la que el aspecto más visible son las denuncias interpuestas cada año por mujeres que sufren esta situación. Un 90% de la población de Euskadi considera inaceptable la violencia contra las mujeres.

Es urgente por tanto, trabajar tanto en su prevención, prestando también atención a formas emergentes de violencia en nuestra sociedad, como en la detección precoz y la atención integral de las mujeres víctimas y de las personas a su cargo, en especial, de sus hijas e hijos ya que son, a su vez, víctimas de la violencia ejercida contra sus madres.

Es este contexto el que motiva la determinación de los siguientes objetivos y acciones a desarrollar durante el ejercicio 2019.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/ 2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA OSATU, EGITURAK INDARTU ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBETU DAITEZEN BULTZATZEA</b></p> <p>1.1. Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren garapena kudeatzea, ahalik eta onena izan dadin.</p> <p>Egindako lan-bileren kopurua.</p> <p>Onartutako txosten eta dokumentuen kopurua.</p> <p>1.2. Eusko Jaurlaritzari zirriborro bat bidaltzea, emakumeen aurkako indarkeria erazteko araudiari buruz.</p> <p>Zirriborro-kopurua.</p> <p>1.3. Legeak eskatzen dituen txostenak eta memoriak Eusko Legebiltzarrari helaraztea, eta agerraldiak egitea, bai Eusko Legebiltzarrak eskatuta, bai lurralde historikoetako batzar nagusiek eskatuta.</p> <p>Helarazitako txosten eta memoriaren kopurua.</p> <p>Agerraldi-kopurua.</p> <p>Legez besteko proposamenen eta erantzundako legebiltzar-galderen kopurua.</p> <p>1.4. Azterlanak egitea, errealitatea hobeto ezagutzen eta berdintasun-politikak hobetzen laguntzeko.</p> <p>Egindako azterlanen kopurua.</p> <p>Argitaratutako materialen kopurua (on-line eta/edo paperezko argitalpenak).</p> <p>1.5. Jaurlaritzako sailei aholku eta laguntza teknikoa ematea, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egiterakoan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan aipatzen diren txostenak).</p> <p>Posta elektronikoz eta telefonoz erantzundako kontsulta eta informazio-eskariaren kopurua.</p> <p>1.6. Txostenak egitea, sailek egindako genero-eragina aurrez ebaluatzeko txostenen gainean.</p> <p>Genero-eragina ebaluatzeko txostenen gainean egindako txostenen kopurua.</p>	<p>2</p> <p>3</p> <p>1</p> <p>5</p> <p>2</p> <p>15</p> <p>2</p> <p>2</p> <p>40</p> <p>60</p>	<p><b>1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/ 2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD</b></p> <p>1.1. Gestionar el desarrollo óptimo del Consejo de Dirección de Emakunde.</p> <p>N. de reuniones de trabajo realizadas.</p> <p>N. de informes y documentos aprobados.</p> <p>1.2. Remitir al Gobierno Vasco un borrador de normativa para la erradicación de la Violencia contra las Mujeres.</p> <p>N. de borradores.</p> <p>1.3. Remitir al Parlamento Vasco los informes y memorias requeridos por la Ley y realizar las comparecencias que se requieran tanto por parte del Parlamento Vasco como por las Juntas Generales de Territorios Históricos.</p> <p>N. de informes y memorias remitidas.</p> <p>N. de comparecencias.</p> <p>N. de proposiciones no de Ley y preguntas parlamentarias respondidas.</p> <p>1.4. Realizar estudios que contribuyan al mejor conocimiento de la realidad y a la mejora de las políticas de igualdad.</p> <p>N. de estudios realizados.</p> <p>N. de materiales editados, on line y/o en soporte papel.</p> <p>1.5. Asesorar y asistir técnicamente a los departamentos del Gobierno en la elaboración de los Informes de Impacto en Función del Género, a que se refieren los artículos 19 y 20 de la Ley 4/ 2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.</p> <p>N. de consultas y peticiones de información atendidas a través de correo electrónico y teléfono.</p> <p>1.6. Emitir informes a los informes de evaluación previa de impacto de género emitidos por los departamentos.</p> <p>N. de informes de evaluación de impacto en función de género informados.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1.7. Berdinsarearen esparruan, udalei eta mankomunitateei aholku ematea, erakunde horietan generoaren araberako eraginaren aurreiazko ebaluazioak ezartzeko.		1.7. En el marco de Berdinsarea, asesorar a ayuntamientos y mancomunidades en la implantación de las evaluaciones previas en función del género en sus entidades.
Zenbat udalek eta mankomunitatek parte hartu duten.	5	N. de ayuntamientos y mancomunidades participantes.
Aholkularitza-saioen kopurua.	10	N. de sesiones de asesoramiento.
1.8. Emakunderen urteko plana egitea eta garatzea, indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatuz eta aurreko urteko jardueren ebaluazioa kontuan hartuta.		1.8. Elaborar y desarrollar el plan anual de Emakunde en desarrollo del Plan vigente para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE y teniendo en cuenta la evaluación de actuaciones del año anterior.
Jarduera-kopurua.	80	N. de actuaciones.
1.9. Eusko Jaurlaritzako, Foru Administrazioako eta Toki Administrazioako sailei bultzada eta aholkularitza ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egin eta gara ditzaten (4/2005 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako planak).		1.9. Impulsar y asesorar a los departamentos del Gobierno Vasco y a la Administración Foral y Local para la elaboración y el desarrollo de los Planes de Igualdad de mujeres y hombres previstos en el artículo 15 de la Ley 4/2005.
Posta elektronikoz eta telefonoz erantzundako kontsulta eta informazio-eskariaren kopurua.	40	N. de consultas y peticiones de información atendidas a través de correo electrónico y teléfono.
1.10. Udal- eta foru-planei buruzko txostenak egitea, indarrean dagoen Berdintasunerako Planean ezarritako jarraibide orokorretara egokitzen diren adierazteko, 4/2005 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.		1.10. Informar los planes departamentales, municipales y forales sobre su adecuación a las directrices generales establecidas por el Plan vigente para la Igualdad, de conformidad con lo previsto en el artículo 15.4 de la Ley 4/2005.
Zenbat txosten egin diren, sailtako berdintasun-planak indarrean dagoen Berdintasunerako Planeko jarraibide orokorrei nola egokitzen zaizkien aztertzeke.	11	N. de informes sobre la adecuación de los Planes departamentales de igualdad a las directrices generales del Plan Vigente para la Igualdad.
Zenbat txosten egin diren, udaletako eta foru-aldundietako berdintasun-planak indarrean dagoen Berdintasunerako Planeko jarraibide orokorrei nola egokitzen zaizkien aztertzeke.	12	N. de informes sobre la adecuación de los Planes municipales y forales de igualdad a las directrices generales del Plan vigente para la Igualdad.
1.11. Deialdia egitea udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak egin eta/edo planak egin eta ebaluatu ditzaten, eta diru-laguntza horiek ebaluatzea eta ematea.		1.11. Convocar, evaluar y conceder subvenciones para la realización de diagnósticos y/o elaboración, evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres por parte de municipios, cuadrillas y mancomunidades.
Udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zenbat proiekturi eman zaien diru-laguntza, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko, eta/edo berdintasun-planak eta/edo sektorialak eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko toki-protokoloak egiteko eta egokitzeko.	33	N. de proyectos subvencionados a municipios, cuadrillas y mancomunidades para la realización de diagnósticos y/o elaboración y adecuación de planes para la igualdad de mujeres y hombres y/o sectoriales, así como protocolos locales en materia de violencia contra las mujeres.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1.12. EAEko administrazio publikoei beren erakundeetan eta politketan genero-ikuspegia txertatzen laguntzea, aholkularitza tekniko eta juridikoa emanez, elkarlanean arituz eta lan-tresnak garatuz, eta berdintasunaren arloko politika espezifikoa garatzen laguntzea.		1.12. Apoyar a las instituciones públicas vascas mediante el asesoramiento técnico y jurídico, la colaboración y el desarrollo de herramientas de trabajo para facilitar la incorporación de la perspectiva de género en su organización y en sus políticas; y para el desarrollo de políticas específicas de igualdad.
Osalanekin eta Lan Ikuskaritzarekin zenbat lan-saio egin diren, erakunde biokin sinatutako elkarlan-hitzarmenak garatzeko.	4	N. de sesiones de trabajo con Osalan y con Inspección de Trabajo para el desarrollo de los convenios de colaboración firmados con ambas entidades.
Osalan eta Lan Ikuskaritzarekin batera zenbat jarduera egin diren, hitzarmenak garatzeko.	2	N. de actividades conjuntas con Osalan y con Inspección de trabajo en desarrollo de los convenios.
Zenbat lan-saio egin diren berdintasunerako erakunde publikoen sarearekin.	5	N. de sesiones de trabajo con la red de entidades públicas para la igualdad.
Zenbat lan-saio egin diren Euskalitekin.	3-5	N. de sesiones de trabajo con Euskalit.
Zenbat praktika egoki onartu diren, kudeaketaren arloko berdintasuneko praktiken bilatzailean sartzeko ( <a href="https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/">https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/</a> ).	8-12	N. de buenas prácticas aceptadas para incluirse en el buscador el buscador de prácticas de igualdad en la gestión ( <a href="https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/">https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/</a> ).
Diru-laguntza izenduna, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari, laguntza eta aholkularitza emateko eta elkarlanean aritzeko.	1	Subvención nominativa para el apoyo, asesoramiento y colaboración al Consejo Vasco de la Juventud.
Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek, udalek, enpresek eta emakume-elkarteek zenbat eskabide jaso eta aztertu dituzten Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuan sartzeko.	15	N. de solicitudes recibidas y analizadas por parte de los departamentos del Gobierno Vasco, diputaciones forales, ayuntamientos, empresas y asociaciones de mujeres para el "Banco de Buenas Prácticas en Igualdad".
Zenbat jardunbide egoki onartu eta erregistratu diren Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuan.	11	N. de buenas prácticas aceptadas y registradas en el "Banco de Buenas Prácticas en Igualdad".
Zenbat aholkularitza- eta koordinazio-bilera egin diren Ogasun eta Ekonomia Sailarekin, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko.	6	N. de reuniones de asesoramiento y coordinación con el Departamento de Hacienda y Economía para promover la incorporación de la perspectiva de género en los presupuestos del Gobierno Vasco.
Zenbat kontsulta juridiko egin eta erantzun diren berdintasunaren gai espezifikoei buruz.	20	N. de consultas jurídicas realizadas y respondidas sobre cuestiones específicas de igualdad.
1.13. Generoaren arloko prestakuntza bultzatzea, eta prestakuntzaren eta ikerketaren arloan genero-ikuspegia sar dadin bultzatzea.		1.13. Impulsar la formación en género y la incorporación de la perspectiva de género en la formación y en la investigación.
Zenbat aholkularitza- eta koordinazio-saio egin diren administrazio publikoetako langileentzako ikastaroak diseinatzeko eta antolatuzeko.	5	N. de sesiones de reuniones de asesoramiento y coordinación para el diseño y la organización de cursos dirigidos al personal de las administraciones públicas.



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Zenbat zuzeneko diru-laguntza eman diren EHUko Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko Masterrera.	1	N. de subvenciones directas concedidas al Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres de la UPV/EHU.
Emakundeko langileek berdintasunari buruz zenbat ikastaro eman dituzten IVAPEk egiten duen prestakuntza-eskaintzan.	4	N. de cursos impartidos por personal de Emakunde en la oferta formativa del IVAP sobre igualdad.
Emakundeko langileek zenbat gai eman dituzten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterrean (2017-2018).	3	N. de temas impartidos por el personal de Emakunde en el Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres (2017-2018).
Zenbat laguntza eman zaizkion Deustuko Unibertsitateari, Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko master ofizialerako.	15	N. de ayudas al Máster universitario oficial en Intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.
Zenbat gai eman diren Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko master ofizialean (Deustuko Unibertsitatea - 2017-2018).	3	N. de temas impartidos en el Máster universitario oficial en Intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto (2017-2018).
Ikerketarako emandako beken kopurua.	3	N. de becas de investigación concedidas.
Lehiaketan saritutako kanpoko ikerlanen kopurua.	1	N. de trabajos de investigación externos premiados en el certamen
Diru-laguntza izenduna, EHUko Uda Ikastaroen Fundazioari, Emakunderekin batera antolatutako udako ikastaro bat garatzeko.	1	Subvención nominativa a la Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU para el desarrollo de un curso de verano coorganizado con Emakunde.
1.14. Administrazioaren jardunean genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea eta lantalde, batzorde eta kontseiluetan parte hartzea.		1.14. Impulsar la incorporación de la perspectiva de género en la actividad administrativa y participar en los grupos de trabajo, comisiones y consejos.
Genero-ikuspegiaren araberako zenbat txosten egin diren plan sektorialen gainean.	2	N. de informes desde la perspectiva de género a planes sectoriales.
Zenbatetan parte hartu den Eusko Jaurlaritzaren batzorde sektorialetan.	5	N. de participaciones en comisiones sectoriales del Gobierno Vasco.
Zenbatetan parte hartu den parte-hartzeko organoetan eta kontseiluetan.	11	N. de participaciones en consejos y órganos de participación.
1.15. Aurrerabide Plana garatzea, Emakunden Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua ezartzeko.		1.15. Desarrollar Plan Aurrerabide para la implantación del Modelo de Gestión Pública Avanzada del Gobierno Vasco en Emakunde.
Plana garatzeko egindako ekintzak.	15	Actividades realizadas en desarrollo del plan.
Lansaio-kopurua.	10	N. de sesiones de trabajo.
1.16. Emakunden Euskararen Erabilera Normalizatze Plana garatzea.		1.16. Desarrollar el Plan de Normalización del Uso del Euskera en Emakunde.
Euskara-plana garatzeko egindako jarduerak.	14	Actividades realizadas en desarrollo del plan de Euskara.
Osoki euskaraz egindako prozeduren kopurua.	3	N. de procedimientos realizados íntegramente en euskera.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Jatorrian euskaraz sortutako dokumentuen kopurua.	10	N. de informes originales producidos en euskera.
1.17. Langileen barne-prestakuntza sustatzea, gai propioetan.		1.17. Promover la formación interna del personal, en materias propias.
Programatutako barneko prestakuntza-plana.	1	Plan de formación interna programado.
Emakundeko langileentzat egin diren prestakuntza-saioak.	2	Sesiones formativas realizadas para el personal de Emakunde.
1.18. Dokumentazio Zentroko ohiko zerbitzuei eustea.		1.18. Mantener los servicios habituales del Centro de Documentación.
Erosketa-kopurua.	250	N. de adquisiciones.
Katalogazio-kopurua.	900	N. de catalogaciones.
Erantzundako kontsulten kopurua.	500	N. de consultas atendidas.
Egindako maileguen kopurua.	150	N. de préstamos realizados.
ABSYS datu-baseetan mantendutako erregistroen kopurua.	25.000	N. de registros mantenidos en las bases de datos ABSYS.
Lankidetzeta-hitzarmena, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin, jakintza zabaltzeko.	1	Convenio de colaboración con el Centro Documentación de Mujeres de Maite Albiz para la difusión de conocimiento.
<b>2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA</b>		<b>2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI</b>
2.1. Urteko txostena egitea, emakumeek eta gizonek hainbat gizarte-eremutan duten egoerari buruz.		2.1. Realizar el informe anual sobre la situación de las mujeres y los hombres en los distintos ámbitos sociales.
Zifrak, egoerari buruzko txostena.	1	Informe de situación cifras.
Txostenean sartutako taulen/adierazleen kopurua.	150	N. de tablas/indicadores incluidos en el informe.
2.2. Botere publikoek indarrean dagoen Berdintasunerako Plana gauzatzeko egin duten lanaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.		2.2. Realizar el seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en ejecución del Plan vigente para la Igualdad.
Informazioa online biltzeko informatika-aplikazioan egindako moldaketak.	1	Adaptaciones en la aplicación informática de recogida on-line de información.
«Ebaluazio-sistema» aplikazioan erregistratuta dauden erakundeen kopurua.	100	N. de instituciones registradas en la aplicación "Sistema de evaluación".
Aplikazioan erregistratuta dauden informazio-fitxen kopurua.	900	N. de fichas informativas registradas en la aplicación.
Botere publikoen jardueraren jarraipen-txostenak.	2	Informes de seguimiento de la actividad de los poderes públicos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2.3. Urteko jarraipen- eta ebaluazio-txostena egitea, etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren betetze-mailari buruz.</p> <p>Txosten-kopurua.</p>	1	<p>2.3. Realizar el informe de seguimiento y evaluación anual del nivel de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.</p> <p>N. de informes.</p>
<p>2.4. Txostenak egitea, indarkeriaren arloan informazioa biltzeko sisteman oinarrituta (sistema hori homogénea da eremu guztietarako, eta ahalbidetzen du ebaluatzea zer irismen eta eraginkortasun duten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako programek eta zerbitzuek); lehen informazio-bilketa egitea, eta, horretaz gainera, txosten horiek zabaltzea.</p>		<p>2.4. Realizar Informes derivados del sistema de recogida de la información homogéneo en materia de violencia para todos los ámbitos los cuales permiten desarrollar la evaluación sobre el alcance y la eficacia de los programas y servicios dirigidos a las víctimas de la violencia contra las mujeres y realizar la primera recogida de información; además, realizar la difusión de estos informes.</p>
<p>Informazio-sistemaren diseinua (baliabideen irismena eta ebaluazioa).</p>	2	<p>Diseño de sistema de información (alcance y evaluación de recursos).</p>
<p>Zenbat galdetegi jaso diren on-line informazioa bildu eta tratatzeko sortutako aplikazio informatikoaren bidez.</p>	250	<p>N. de cuestionarios recogidos a través de la aplicación informática creada para la recogida de información online y el tratamiento de la información.</p>
<p>2018an egindako txostenak zabaltzeko aurkezpenak.</p>	3	<p>Presentaciones para la difusión de los informes realizados durante el 2018.</p>
<p>2.5. Jardueraren urteko memoriak egitea eta zabaltzea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearena, Begira-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku Batzordearena eta sektore pribatuan sexuan oinarritutako diskriminazio-egoeretan dauden herritarrei arreta emateko zerbitzuarena.</p> <p>Egindako eta zabalduetako memoriaren kopurua.</p>	3	<p>2.5. Elaborar y difundir las memorias anuales de actividad relativas a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, a la Comisión para el uso no sexista de la publicidad y la comunicación/Begira y al Servicio de atención a la ciudadanía ante situaciones de discriminación por razón de sexo en el sector privado.</p> <p>N. de memorias realizadas y difundidas.</p>
<p><b>3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN</b></p>		<p><b>3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI</b></p>
<p>3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeko buru izatea eta haren kudeaketa teknikoaz eta administratiboaz arduratzea.</p>		<p>3.1. Presidir y asumir la gestión técnica y administrativa de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.</p>
<p>Batzordearen bilera kopurua.</p>	1	<p>N. de reuniones de la Comisión.</p>
<p>Erakundearteko Lantalde Teknikoak egindako bileren kopurua.</p>	1	<p>N. de reuniones realizadas por el Grupo Técnico Interinstitucional.</p>
<p>Jardunean diren lantalde teknikoaren kopurua.</p>	4	<p>N. de grupos técnicos de trabajo en activo.</p>
<p>Lantalde teknikoek egindako bileren kopurua.</p>	6	<p>N. de reuniones realizadas por los grupos técnicos de trabajo.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
3.2. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordeko buru izatea eta haren kudeaketa teknikoaz eta administratiboaz arduratzea.		3.2. Presidir y asumir la gestión técnica y administrativa de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
Batzordeak egindako bileren kopurua.	1	N. de reuniones realizadas por la Comisión.
Sailarteko Lantalde Teknikoak egindako bileren kopurua.	6	N. de reuniones realizadas por el Grupo Técnico Interdepartamental.
Garatutako proiektuen kopurua.	3	N. de proyectos desarrollados.
Sortutako lantalde teknikoaren kopurua.	2	N. de grupos técnicos de trabajo en activo.
3.3. Etxean tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearen Arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeko buru izatea eta haren kudeaketa teknikoaz eta administratiboaz arduratzea.		3.3. Presidir y asumir la gestión técnica y administrativa de la Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales.
Batzordeak egindako bileren kopurua.	1	N. de reuniones realizadas por la Comisión.
Erakundearteko Lantalde Teknikoak egindako bileren kopurua.	1	N. de reuniones realizadas por el Grupo Técnico Interinstitucional.
Jardunean diren lantalde teknikoaren kopurua: Harrera Baliabideei buruzko Lantaldea (HABAL), Informazio Sistemen Taldea (IST).	2	N. de grupos técnicos de trabajo en activo: GTRA (Grupo de Trabajo sobre Recursos de Acogida), GSI (Grupo de Sistemas de Información).
Lantalde teknikoek egindako bileren kopurua.	2	N. reuniones realizadas por los grupos técnicos de trabajo.
3.4. BEGIRA-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeko buru izatea, eta haren kudeaketa teknikoaz eta administratiboaz arduratzea.		3.4. Presidir y asumir la gestión técnica y administrativa de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación / BEGIRA.
Batzordeak egindako bileren kopurua.	2	N. de reuniones realizadas por la Comisión.
Lantaldeen eta kontraste-taldeen bileren/saioen kopurua.	12	N. de reuniones/sesiones de grupos de trabajo y contraste.
3.5. Aholku Batzordearen buru izatea eta horren kudeaketa tekniko eta administratiboaz arduratzea.		3.5. Presidir y asumir la gestión técnica y administrativa de la Comisión Consultiva.
Batzordeak egindako bileren kopurua.	2	N. de reuniones realizadas por la Comisión.
Lurralde-azpibatzeriek egindako bileren kopurua.	17	N. de reuniones realizadas por las subcomisiones territoriales.
3.6. Eudelekin Berdinsareko jarduerak garatzeko egindako hitzarmenarekin jarraitzea eta lan-batzordeetan eta jarraipen-bileretan parte hartzea.		3.6. Mantener el convenio con Eudel para el desarrollo de las actuaciones de la red Berdinsarea, participar en las Comisiones de Trabajo y reuniones de seguimiento.
Berdinsareko udalerrietan berdintasun-politikak sustatzeko hitzarmena.	1	Convenio para el impulso de políticas de igualdad en los municipios de Berdinsarea.
Jarraipen-bileren kopurua.	10	N. de reuniones de seguimiento.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Lan-batzordeen bileren kopurua.	10	N. de reuniones de las Comisiones de Trabajo.
3.7. Bideak ezartzea erakundearen antzeko helburuak dituzten Estatuko, Europako eta nazioarteko beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko eta parte hartzeko.		3.7. Establecer relaciones de participación y colaboración con otras instituciones con objetivos afines al Instituto del ámbito estatal, europeo e internacional.
Estatuko Emakumearen Institutuak bultzatutako sareetan parte hartzea.	2	Participación en redes promovidas por el Instituto de la Mujer del Estado.
Egitura Funtsetako Berdintasun Politiken Sarearekin egindako bileren kopurua.	2	N. reuniones en la Red de políticas de Igualdad en los Fondos estructurales.
Diru-laguntza izenduna, Munduko Landaguneari laguntza emateko, AIAF+10aren garapenean berdintasuna txertatzen.	1	Subvención nominativa para apoyar al Foro Rural Mundial en la incorporación de la igualdad en el desarrollo del AIAF+10.
Nazioarteko erakundeekin sinatutako elkarlantesnen kopurua.	2	N. de instrumentos de colaboración firmados con organizaciones internacionales.
Nazioarteko erakundeekin egindako bileren kopurua.	7	N. de reuniones con organizaciones internacionales.
Nazioarteko erakundeekin elkarlanean egiten diren ekitaldi eta programen kopurua.	4	N. de eventos y programas en los que se colabora con organizaciones internacionales.
Diru-laguntza izenduna, UNFPari (Nazio Batuen Biztanleria Funtza), indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskatilentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globala garatzeko.	1	Subvención nominativa a UNFPA para el desarrollo del Programa conjunto de las Naciones Unidas sobre servicios esenciales para mujeres y niñas víctimas de violencia.
Diru-laguntza izenduna, PNUDi (Garapenerako Nazio Batuen Programara), Tokiko Garapen Ekonomikoan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko.	1	Subvención nominativa al PNUD para apoyar la incorporación de la perspectiva de género en el Desarrollo Económico Local.
<b>4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO</b>		<b>4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS</b>
4.1. Emakumeen ahalduntzeari dagokionez.		4.1. Relativas al empoderamiento de las mujeres.
4.1.1. Ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa bultzatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta laguntza ekonomikoaren bidez, elkartegintza sustatzeari begira.		4.1.1. Promover el empoderamiento personal, colectivo, social y político a través del asesoramiento, la formación y el apoyo económico dirigido al fomento del asociacionismo.
Emakundeko Aholku Batzordea eta hiru lurralde historikoetan egiten diren aholku-azpibatzerdeak koordinatzeko eta bultzatzeko bileren kopurua.	22	N. de reuniones para la coordinación e impulso de la Comisión Consultiva de Emakunde, así como las Subcomisiones Consultivas que se celebran en los tres Territorios Históricos.
Emakumeen elkarteek egindako elkarretaratze-jardunaldia.	1	Jornada de encuentro de las asociaciones de mujeres.
Jardunaldira joan diren emakumeen kopurua.	150	N. de mujeres asistentes a la jornada.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Genero-ikuspegidun sareak bultzatzeko eta sendotzeko egindako bileren kopurua.	14	N. de reuniones para el impulso y consolidación de redes con visión de género.
Posta elektronikoz eta telefonoz erantzundako kontsulten eta informazio-eskariaren kopurua.	650	N. de consultas y peticiones de información atendidas a través de correo electrónico y teléfono.
Elkarteei posta arruntez edo elektronikoz bidalitako mezuen kopurua.	70	N. de mailing a asociaciones vía correo electrónico y/o postal.
Zenbat aholkularitza-saio eman diren pertsona, talde, elkarte eta beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuentzat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea ahalbidetuko duten estrategiei eta programak eta proiektuak gauzatzeari buruz.	144	N. de asesoramientos individualizados a personas, grupos, asociaciones u otras entidades tanto públicas como privadas sobre estrategias, elaboración de programas y proyectos que posibiliten el logro de la igualdad de mujeres y hombres.
Emakume-elkarteei emandako diru-laguntzen kopurua.	100-140	N. de subvenciones concedidas a asociaciones de mujeres.
Emakume-elkarteen proiektu diruz lagunduen kopurua.	183	N. de proyectos subvencionados a asociaciones de mujeres.
Diru-laguntza lortu duten emakume-elkarteen %, elkarteen gidaliburuan erregistratuta dauden emakume-elkarte guztiekiko.	75	% de asociaciones de mujeres que obtienen subvención frente al total de asociaciones de mujeres registradas en la guía de asociaciones.
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde diharduten emakume-elkarteen eta erakundeen datu-baseak eguneratzea.	1	Actualización de las bases de datos de asociaciones de mujeres y entidades que trabajan a favor de la igualdad de mujeres y hombres.
EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde diharduten emakume-elkarteen eta erakundeen gidaliburua eguneratzea.	1	Actualización de la Guía de Asociaciones de Mujeres y entidades que trabajan a favor de la igualdad de mujeres y hombres en la CAE.
Emakume-elkarteetan informazioaren teknologiak erabil ditzaten bultzatzeko proiektuen kopurua.	2	N. de proyectos para favorecer el uso de tecnologías de la información en el ámbito de las asociaciones de mujeres.
Ahalduntze soziopolitiko eta haren ikusgarritasun soziala sustatzeko proiektuen kopurua.	4	N. de proyectos para promover el empoderamiento sociopolítico y su visibilización social.
4.1.2. Ahalduntze pertsonal eta kolektiboa bultzatzea, baliabidetarako sarbidea eta kontrola sustatuz.		4.1.2. Fomentar el empoderamiento personal y colectivo promoviendo el acceso y control de los recursos.
Enpleguari buruzko gidaliburu argitaratu eta eguneratuen kopurua.	2	N. de guías de empleo editadas y actualizadas.
Hainbat arlori buruzko kongresu, mintegi edo gogoeta- eta sakontze-jardunaldiak, arlo horietan diharduten profesionalentzat bereziki antolatutak.	6	Congresos, seminarios o jornadas de reflexión y profundización en diversas materias dirigidas, especialmente, a personas profesionales que trabajen en los distintos ámbitos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Zenbat aholkularitza-saio egin diren erakunde publiko eta pribatuekin, berdintasunaren arloko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak diseinatzeko eta antolatzeko.	10-15	N. de asesoramientos a entidades públicas y privadas en el diseño y organización de actividades de sensibilización y formación en materia de igualdad.
EHUK bultzatutako berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroen kopurua.	1	N. de cursos de formación en igualdad promovidos con la UPV/EHU.
Berdinsarearen esparruan "Virginia Woolf Basqueskola" legealdi-programarekin elkarlanean aritzea eta 2019rako programa garatzea (Virginia Woolf Basqueskola, Euskadiko udaletako emakume hautetsientzako eskola).	1	Colaboración en el marco de Berdinsarea con el programa "Virginia Woolf Basqueskola", escuela para mujeres electas municipales de Euskadi y desarrollar el programa para el 2019.
Diru-laguntza izenduna, Azkuna Zentroari, artearen arloan ezagutza feministarako sare bat garatzeko.	1	Subvención nominativa al Azkuna Zentroa para el desarrollo de una red de conocimiento feminista en el arte.
Diru-laguntza izenduna, Bertsolaritza Elkarteari, bertsolaritzan genero-ikuspegia sustatzeko eta emakumeek bertsotan egin dezaten bultzatzeko.	1	Subvención nominativa a Bertsolaritza Elkartea para la promoción de la perspectiva de género en la bertsolaritza y la promoción de las mujeres bertsolaris.
